

BETERRI BURUNTZA
Mankomunitatea

ANDOAIN • ASTIGARRAGA • HERNANI • LASARTE-ORIA • URNIETA • USURBIL

www.beterriburuntza.eus

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA
DEPARTAMENTO DE TURISMO, COMERCIO Y CONSUMO

EUSKADI BASQUE COUNTRY

HAIN GIPUZKOA DONOSTIA



Sei udalerrik osatzen dugu Beterri-Buruntza: Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbil. Gure eskualdea batez ere sagardo eta sagar kulturagatik ezaguna da, baina beste gauza asko ditugu erakusteko: bailarak eta ibaiak, mendiak, ibilbideak, bide berdeak, historia, ondarea, monumentu megalitikoak, kirolak naturan... eta, zalantzarik gabe, berdea da gure paisaien kolore nabarmenena. Euskara eta euskal kultura gure nortasunean errotuta daude eta, eskualdean guztira 75.000 bat biztanle batzen bagara ere, herri izaera mantentzen dugu. Gipuzkoako bihotzean kokatua eta Donostia eta inguruko eskualdeekin ondo komunikatua, gertu duzu Beterri-Buruntza, zatoz gu ezagutzera!

Seis municipios formamos Beterri-Buruntza: Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta y Usurbil. Nuestra comarca es conocida sobre todo por la cultura de la sidra y la manzana, pero tenemos otras muchas cosas para mostrar: valles y ríos, montañas, recorridos, vías verdes, historia, patrimonio, monumentos megalíticos, deportes en la naturaleza... y, sin duda, el verde es el color más destacado de nuestro paisaje. El euskera y la cultura vasca están en la raíz de nuestra forma de ser y, aunque sumemos unos 75.000 habitantes, mantenemos el carácter local. Situada en el corazón de Gipuzkoa y bien comunicada con San Sebastián y las comarcas de alrededor, tienes cerca a Beterri-Buruntza, ¡acércate a conocernos!

IKASI ZURE LEHEN HITZAK EUSKARAZ!
¡APRENDE TUS PRIMERAS PALABRAS EN EUSKERA!

CAST	EUSK
Hola	Kaixo
Bienvenido/a	Ongi etorri
Buenos días	Egun on
Buenas tardes	Arratsalde on
Buenas noches	Gabon
Sí	Bai
No	Ez
Perdona	Barkatu
Por favor	Mesedez
Gracias	Eskerrik asko
De nada	Ez horregatik
Adiós	Agur

¡¡Sigue aprendiendo!! ¡¡Jarraitu ikasten!!

English Français Català

2025eko uztaila / julio de 2025 – LG.D 782-2025

BETERRI-BURUNTZAko TOP 10

TOP 1 Bailarak / Valles



Leitzaran, Oria eta Urumea ibaiek Beterri-Buruntza eskualdea zeharkatzen dute eta bere inguruan bizitza handia sortzen da. Horiek guztiak Natura 2000 sarearen parte dira. Leitzaran ibaia, gainera, Biotopo Babestua da, eta haren erreferentzia-gunea Leitzaran Bisitarien Etxea da (ekoturismoko eta naturako turismo aktiboko zentroa). Oria erroan Saria hezegunea nabarmentzea da eta, bere aldetik, Urumea ibaiak bide bihurria egiten du Aiako Harriko Parke Naturaletik Donostiaraino.

Los ríos Leitzaran, Oria y Urumea recorren la comarca de Beterri-Buruntza y a su alrededor surge mucha vida. Todos ellos forman parte de la red natura 2000, siendo el Leitzaran además Biotopo Protegido y cuyo espacio de referencia es el Centro de Visitantes Leitzaran (centro de ecoturismo y turismo activo de naturaleza). En el Oria destaca el humedal de Saria y, por su parte, el río Urumea realiza un camino sinuoso desde el Parque Natural de Aiako Harria hasta San Sebastián.

leitzaran-andoain.eus • leitzaran.net

TOP 2 Mendiak eta ibilbideak / Montañas y recorridos



Adarramendi eskualdeko mendi ezagunena da, baina inguruan beste gailur interesgarri asko daude: Andatza, Azketa, Buruntza, Mendizorrotz, Oindi, Santa Barbara, Txoritokieta, Zaburu... Horiek guztiak, natur guneak eta herriak ezagutzeko hamaika bide dituzu. Gainera, bi ibilbide luze eskualdetik pasatzen dira: GR-121 (Gipuzkoari Itzulia) eta GR-285 (Mendibai).

Adarramendi es el monte más conocido de la comarca, pero alrededor hay otras muchas cimas interesantes: Andatza, Azketa, Buruntza, Mendizorrotz, Oindi, Santa Barbara, Txoritokieta, Zaburu... Para conocer todas ellas, las zonas naturales y los pueblos encontrarás numerosos caminos. Además, dos senderos de largo recorrido pasan por la comarca: GR-121 (Vuelta a Gipuzkoa) y GR-285 (Mendibai).

www.gipuzkoanatura.eus

TOP 3 Donejakue Bidea / Camino de Santiago



Barrualdeko Bidea Astigarragako Santiagomenditik sartzen da eskualdean eta Hernanin bi aldaeratan banatzen da: lehenengoak Errege Bidea jarraitzen du, bailaratik, Urnieta eta Andoain aldera; eta bigarrenak (Saiatz ibilbidea), Lasarte-Oria eta Usurbiletik jarraitzen du eta Beterri-Buruntza atzean uzten du Andatza mendiaren inguruetatik.

El Camino del Interior entra en la comarca por Santiagomendi, en Astigarraga, y al llegar a Hernani se bifurca en dos variantes: la primera sigue el Camino Real, por el valle, hacia Urnieta y Andoain; la segunda (camino de Saiatz), sigue por Lasarte-Oria y Usurbil dejando atrás Beterri-Buruntza por los alrededores del monte Andatza.

www.turismoa.euskadi.eus

TOP 4 Bide Berdea eta zikloturismoa / Vía Verde y cicloturismo



Plazaolako trenaren ibilbide zaharraren 78 kilometro egokitu dira, Andoain eta Iruña artean, bizikletarekin edo oinez ibiltzeko. Bide berde horren beste zati bat Lasarte-Orian ere berreskuratuta dago eta 2026. urtean lanak egingo dira herri hori Urnieta eta Andoainekin lotzeko. Horrela, beste bidegorriekin batera, eskualdeko txoko asko txirrindarekin deskubritu ahalko dituzu.

Se han acondicionado 78 kilómetros del antiguo recorrido del tren del Plazaola, entre Andoain y Pamplona, para andar en bicicleta o caminar. Otro tramo de esta vía verde está recuperado en Lasarte-Oria y en el año 2026 se van a realizar obras para unirlo con Urnieta y Andoain. Así, junto a otras sendas ciclables, podrás descubrir muchos rincones de la comarca en bici.

andoain.eus/eu/plazaolako-bide-berdea • www.viasverdes.com • gipuzkoa.eus/eu/web/bizikletaz

TOP 5 Historia, ondarea eta artea / Historia, patrimonio y arte



Baserriak, dorreak, udaletxeak, elizak, Erdi Aroko hiribilduak, burdinolak, zubiak... Eskualdeak historia oparoa du ondare babestua diren bere monumentuek erakusten duten bezala. Bestalde, gure herriek ere arte garaikideari lotura handia dute, Chillida Leku edo Usurbil eta Lasarte-Oriako museo irekietan ikus daitekeen bezala.

Caseríos, torres, ayuntamientos, iglesias, villas medievales, ferrerías, puentes... La comarca tiene historia rica tal y como muestran los monumentos que son patrimonio protegido. Por otro lado, nuestros municipios también tienen mucha relación con el arte contemporáneo, como se puede ver en Chillida Leku o en los museos abiertos de Usurbil o Lasarte-Oria.

hernanihiribildua.eus • museochillidaleku.com • lasarte-oria.eus/eu/aire-libreko-museoa

TOP 6 Ondarea megalitikoa / Patrimonio megalítico



Estazio megalitikoak, trikuharriak, harrespilak, menhirrak... Aurrehistoriako ondare ugaria ere aurkituko duzu gure mendietan, besteak beste, Eteneta eta Muniskuegaina multzoak edo Andatzako estazio megalitikoa. Neolitiko, Brontze eta Burdin Aroko aztarna horiek aitzakia paregabea dira, natur guneak ezagutzeaz gain, historia bertatik bertara ikusi ahal izateko.

Estaciones megalíticas, dólmenes, crómlechs, menhires... También encontrarás numeroso patrimonio de la Prehistoria en nuestros montes, entre otros, en los conjuntos de Eteneta y Muniskuegaina o la estación megalítica de Andatza. Estos restos del Neolítico, la Edad de Bronce y la de Hierro son una inmejorable excusa para, además de conocer las zonas naturales, ver la historia de primera mano.

urnieta.eus/eu/ikusi-eta-egin

TOP 7 Sagarra, sagardoa eta gastronomia / Manzana, sidra y gastronomía



Eskualdeko sei herrietan Gipuzkoa eta Euskal Herriko sagardotegi kopuru handiena kokatzen da, baina sagardoarekin batera sagarra da protagonista lur hauetan. Produktu horien historia eta kultura Astigarragako Sagardoetxean kontatzen dira eta upategietan egiten diren bisita gidatuetan. Gozatu sagardo, sagar eta gastronomiaz!

En los seis municipios de la comarca se concentra el mayor número de sidrerías de Gipuzkoa y Euskal Herria, pero junto a la sidra la manaza es la protagonista en estas tierras. La historia y cultura de estos productos se relata en la Sagardoetxea (Museo de la Sidra Vasca) de Astigarraga y en las visitas guiadas a las bodegas de sidra. ¡Disfruta de la sidra, la manzana y la gastronomía!

sagardoarenlurraldea.eus • sagardoa.eus • turismoa.hernani.eus/eu/sagardoa

TOP 8 Euskara eta euskal kultura / Euskera y cultura vasca



Eskualdeko kultur agenda ekitaldiz osatuta dago antolatzen diren jai eta ferietan. Azker urteetan ere kultur ekipamendu berriak eraiki dira: Andoaingo Bastero Kulturgunea, Astigarragako Erribera Kulturgunea, Hernaniko Biteri Kultur Etxea, Lasarte-Oriako Manuel Lekuona Kultur Etxea, Urnietako Sarobe Arte Eszeniko Gunea, Usurbilgo Sutegi Kulturgunea... Euskara eta euskal kultura gure nortasunaren oinarria dira.

La agenda cultural de la comarca está llena de eventos con las fiestas y ferias que se organizan. En los últimos años también se han construido nuevos equipamientos culturales: Bastero Kulturgunea de Andoain, Erribera Kulturgunea de Astigarraga, casa de cultura Biteri de Hernani, casa de cultura Manuel Lekuona de Lasarte-Oria, centro de artes escénicas Sarobe de Urnieta, casa de cultura Sutegi de Usurbil... El euskera y la cultura vasca son la base de nuestra identidad.

buruntzaldea.eus

TOP 9 Kirolak naturan / Deporte en la naturaleza



Kayak, arrantza, eskalada, BTT, orientazio probak, hipika, golfa... eta Gipuzkoako ferrata bide bakarra. Aire librean egin daitezkeen kirol horiek guztiak eta beste batzuk Beterri-Buruntzan goza ditzakezu! Gainera, erremonteko partidak ikusi eta modalitate horretan proba egin dezakezu Hernaniko Galarretako frontoian, kirol horren katedralean.

Kayak, pesca, BTT, escalada, pruebas de orientación, hípica, golf... y la única vía ferrata de Gipuzkoa. ¡En Beterri-Buruntza puedes disfrutar de todos estos deportes y otros tantos que se practican al aire libre! Además, puedes ver partidos de remonte y probar a jugar en esta modalidad en el frontón Galarreta, la catedral de este deporte, en Hernani.

begi-bistan.com • mendirizmendi.com/hernani_eskalada • galarretajaialai.com • leitzaran-andoain.eus

TOP 10 Herri izaera / Carácter local



Eskualdeko udalerrietan herri izaera mantentzen da eta herri ekimenek garrantzia handia dute. Guregana iristen diren bisitariak herriak eta inguruak ikusteaz gain baina gure baloreak ere ezagutzen dituzte: justizia soziala, naturarekiko errespetua, kultura eta identitate aniztasuna... Hori guztia erakusten da, besteak beste, 650 Usurbil Bizi programan edo Hernaniko Ibilbide Morean.

En los municipios de la comarca se mantiene el carácter local y las iniciativas populares tienen mucha importancia. Las y los visitantes que llegan, además de ver nuestros pueblos y lugares, también conocen nuestros valores: justicia social, respeto por la naturaleza, diversidad cultural e identitaria... Todo ello se muestra, entre otros, en la iniciativa 650 Usurbil Bizi o en el Paseo Morado de Hernani.

www.650usurbilbizi.eus • www.hernani.eus/ibilbide-morea

ANDOAIN



Andoain ia 15.000 biztanleko udalerria da, eskualdearen hegoaldean dago, Tolosalderako bidean. Oria eta Leitzaran ibaiek bat egiten dute bertan. Leitzaran ibaiak izen bereko bailara zeharkatzen du, biztanlerik gabe, eta bere garaian tren batek, Plazaolak, zeharkatzen zuen iparretik hegoaldera. Gaur egun, inguru hau paradisu bihurtu da mendi-ibiltarientzat, bizikletazaleentzat eta, oro har, naturako turismoarentzat, erreferentziazko gunea Leitzaran Bisitarien Etxekoa izanik. Otieta parkean dago, Leitzaran bailararen sarreran eta Plazaola-Leitzaran bide berdearen ondoan. Bide berdeari jarraituz, erdigunera iritsiko zara, ondareaz gain, eskaintza kultural eta komertzial zabala eskaintzen duena.

Andoain es un municipio, de casi 15.000 habitantes, que se sitúa en el sur de la comarca, en el camino a Tolosaldea. En él confluyen los ríos Oria y Leitzaran. El río Leitzaran atraviesa el valle del mismo nombre, sin habitantes, y que en su día un tren, el Plazaola, lo recorría de norte a sur. Hoy, este entorno se ha convertido en un paraíso para senderistas, aficionados/as a la bicicleta y al turismo de naturaleza en general, siendo el espacio de referencia el Centro de Visitantes Leitzaran. Éste se encuentra en el Parque de Otieta, en la misma entrada al valle Leitzaran y junto a la vía verde del Plazaola-Leitzaran. Siguiendo la vía verde, llegarás al centro de la localidad que, además de su patrimonio, ofrece una amplia y variada oferta cultural y comercial.

Urigain egoitza. La Salle etorbidea, 6 (943 590 409)
Leitzaran Bisitarien Etxea. Otieta parkea (943 300 929)

ANDOAINGO UDALA

1. Goikoplaza
2. Bastero kulturgunea
3. Buruntza San Martin parke arkeologikoa
4. Leitzaran bailara eta Plazaola-Leitzaran bide berdea

ASTIGARRAGA



Astigarraga Donostiatik 5 kilometrora kokatzen da, Santiagomendiren azpian, eta hortik iristen dira Barrualdeko Bidetik Santiagora doazen erromesak. Sagardoetxean, Euskal Sagardoaren Museoa dena, produktu horren eta sagarraren inguruko historia eta kultura modu dinamiko eta pedagogikoan ezagutuko dituzu, sagar mota ezberdinak eta sagarrondoan kudeaketa nola egiten den ikusiko duzu eta dastatzeko ere aukera izango duzu. Gainera, Urumea ibaiaren ondoan azkar hazi baina bere ondarea eta kultura mantendu dituen herria ikusiko duzu eta eguna borobildu ahalko duzu sagardotegi batera hurbilduz.

Astigarraga se sitúa a 5 kilómetros de San Sebastián, bajo el monte Santiagomendi, y desde ahí llegan las y los peregrinos que van hacia Santiago por el Camino del Interior. En la Sagardoetxea, Museo de la Sidra Vasca, podrás conocer la historia y la cultura en torno a este producto y sobre la manzana de una forma dinámica y pedagógica, verás las diferentes variedades de manzana y cómo se realiza la gestión del manzanal y también tendrás la oportunidad de probar. Además, verás un pueblo junto al río Urumea que a pesar de crecer rápidamente ha mantenido su patrimonio y su cultura y podrás culminar el día acercándote a una bodega de sidra.

Sagardoetxea.
Kale Nagusia, 48 (943 550 575)

Astigarragako Udala

5. Sagardoetxea
6. Foru Plaza eta udaletxea
7. Murgia jauregia
8. Santiagomendi ermita

HERNANI



Hernani Beterri-Buruntza erdian dagoen udalerria eta 20.000 biztanle baino gehiagorekin eskualdeko handiena da, baita zabaleran ere. Hiriguneak Santa Barbara mendiaren magalean du kokapena eta Kultur Ondasun gisa izendatuta dago. Urumea ibaia da herriko ardatz hidrografikoa, inguruko mendietan Historiaurreko arrasto megalitiko ugari dago eta harro eusten zaio sagardo ekoizteko ohiturari. Hernani euskalduna eta anitza da eta berdintasunaren alde egiten du urtean zehar antolatzen diren ekitaldietan ikusi daitekeen bezala; gainera, Galarreta frontoia eta Chillida Leku Museoa ere udalerrian kokatzen dira.

Hernani es un municipio situado en el centro de Beterri-Buruntza y con sus más de 20.000 habitantes es el más grande de la comarca, también en superficie. El casco urbano se encuentra en las faldas del monte Santa Bárbara y tiene la calificación de Conjunto Monumental. El río Urumea es el eje hidrográfico de la localidad, en los montes circundantes existen numerosos restos megalíticos prehistóricos y se mantiene con orgullo la tradición de producir sidra. Hernani es euskaldun y plural y en favor de la igualdad como se puede ver en las actividades que se organizan a lo largo del año; además, el frontón Galarreta y el Museo Chillida Leku también se encuentra en el municipio.

Plazara Gunea.
Gudarien Plaza, 5 (688 607 838)

Hernaniko Udala

9. Hirigune historikoa
10. Santa Barbara mendia
11. Chillida Leku
12. Galarreta Jai Alai pilotalekua

LASARTE-ORIA



Lasarte-Oria Gipuzkoako udalerri gazteenetakoa da 1986an sortu zelako, baina azkar hazi da eta Beterri-Buruntzako bigarren hiria da, ia 20.000 biztanlerekin. Oria ibaiaren bailaran kokatua eta ondo komunikatua, laster osatuko den Plazaolako Bide Berdearen esker Donostia eta eskualdeko beste herrien arteko bidegurutze bilakatuko da. Brigiden komentua bere monumentu nabarmenena da eta eskualdeko 3 Michelin izarretako jatetxe bakarra, Martín Berasategui, bertan ere kokatzen da. Merkataritza eta kultur mugimenduak oso dinamikoak ditu eta, ibaiaren beste aldean badago ere, Zubietan, Lasarte-Oriak lortu handia dauka bertan dagoen hipodromoarekin.

Creado en 1986, Lasarte-Oria es uno de los municipios más jóvenes de Gipuzkoa, pero ha crecido rápido y es la segunda ciudad de Beterri-Buruntza, con casi 20.000 habitantes. Situado en el valle del río Oria y bien comunicado, cuando se complete la Vía Verde del Plazaola se convertirá en el cruce de caminos entre San Sebastián y los otros municipios de la comarca. El convento de las Brígidas es su monumento más destacado y el único restaurante con 3 estrellas Michelín de la comarca, Martín Berasategui, también se encuentra aquí. El comercio y los movimientos culturales son muy dinámicos y, aunque se sitúa al otro lado del río, en Zubieta, Lasarte-Oria también tiene una relación muy estrecha con el hipódromo.

Lasarte-Oriako Udala.
Kale Nagusia, 22 (943 376 055)

LASARTE-ORIA UDALA · ARGIXBIDEKO

13. San Pedro eliza
14. Udaletxea
15. Brigiden Komentua
16. Plazaola Bide Berdea

URNIETA



Urnieta Beterri-Buruntzako erdigunean kokatua dago eta 6.000 biztanle baino gehiago ditu. Urnieta mendiz inguratua dago, eta horietatik esanguratsuena Adarramendi da, 819 metro garaikoa. Gailurraren inguruan hainbat harrespilen (Muniskuegaina...), trikuharrien (Otsolepo, Posentarriko lepoa...) eta elurzuloen aztarnak daude. Denak Oindi-Mandoegi estazio megalitikoan, Kultur Ondar gisa Monumentu Multzo izendatuak. Herritik Errege Bide zaharra pasatzen zen eta gaur egun Santiagora doazen erromesak ondare eta kulturaz gozatzeko aukera dute; horren eredu da udal armarria, Gipuzkoa osoan dagoen handiena da.

Urnieta está situado en el centro de Beterri-Buruntza y tiene más de 6.000 habitantes. El pueblo de Urnieta está rodeado de montañas, siendo la cumbre del Adarramendi la más significativa, con 819 metros de altura. Cerca de la cumbre se encuentran los monumentos megalíticos como el conjunto de Muniskuegaina, dólmenes (Otsolepo, Posentarriko lepoa...) y restos de neveros. Todos estos forman la llamada esta- ción megalítica de Oindi-Mandoegi, Patrimonio Cultural calificado como Conjunto Monumental. Por el pueblo transcurría el Camino Real y hoy las y los peregrinos/as que van a Santiago tienen opción de disfrutar del patrimonio y la cultura; ejemplo de eso es el escudo municipal, el más grande de todo Gipuzkoa.

Urnietako Udala (Bertan Zerbitzua).
San Juan Plaza, 5 behea (943 008 000)

Urnietako Udala

17. San Migel eliza eta udaletxea
18. Sarobe Arte Eszenikoen Gunea
19. Adarramendi
20. Muniskuegaineko Harrespilak

USURBIL



Usurbil eskualdearen mendebaldean kokatzen da, Oria ibaiaren azken kilometroetan eta Urola-Kostarako bidean. Herri mailan 650 Usurbil Bizi ekimena garatu da, Usurbilen identitatean, baloreetan, ondarean, artean eta proiektu eraldatzaileetan oinarritutako eskaintza. Horri esker, Usurbilen beste mundu bat posible dela erakutsiko dizun herria eta herritarrak aurkituko dituzu: euskal arte garaikidea kaleetan, ondare zaindua, sagardoaren kultura eta nekazaritza eredu berritzaileak, me- moria historikoa, natura eta aisialdiaz gozatzeko formulak, komunitate zaintzailea, gizarte eta kultur proiektu eraldatzaileak eta euskararen presentzia zabala.

Usurbil se sitúa en el oeste de la comarca, en los últimos kilómetros del río Oria y en el camino hacia Urola-Kosta. A nivel local se ha desarrollado la iniciativa 650 Usurbil Bizi que propone una oferta basada en la identidad, los valores, el patrimonio, el arte y los proyectos transformadores del municipio. Gracias a ello, en Usurbil encontrarás un pueblo y una ciudadanía que te demostrará que otro mundo es posible: arte contemporáneo vasco en las calles, un patrimonio cuidado, la cultura de la sidra y modelos agrarios innovadores, memoria histórica, fórmulas para disfrutar de la naturaleza y el ocio, una comunidad cuidadora, proyectos sociales y culturales transformadores y amplia presencia del euskera.

Usurbilgo Udala. Joxe Martin Sagardia Plaza z/g
(943 371 951 / 747 485 140) / Informazio totema (M. Laboa plaza)

Usurbilgo Udala

21. Dema Plaza eta San Salbatore eliza
22. Zumetaren murala
23. Udaletxea eta 650 Usurbil Bizi
24. Andatza mendia

BETERRI BURUNTZA
Mankomunitatea

Kantauri Itsasoa / Mar Cantábrico

Mendizorrotz
416 m

Donostia-San Sebastián

Urumea ibaia

Aiako Harria
Natura Parkea

AP-8

Bordatxo
341 m

Zumeta Arte
estudioa

AP-1

Aginaga

USURBIL

Kalezar

Txokoalde

Santu-Enea

Oria ibaia

LASARTE-ORIA

Zubieta

Chillida Leku
museoa

Orona Ideo

Galarreta
Jai Alai

Zabaleta

Santa Barbara
245 m

ASTIGARRAGA

San Agustin
komentua

HERNANI

Ergobia

Txoritokietako
gotorlekua

Sagardoetxea
museoa

Santiagomendi
298 m

Igorin
459 m

Akarregi

Martindegi

Igorin-Alkola
megalito-multzoa

Epela

Zikuñaga

Oztaran
URNIETA

Ereñotzu

Pagoaga

Andatza
562 m

Azkorteko
ermita

A-15

Lategi

Osinaga

Urumea ibaia

Oindi
548 m

Buruntza
441 m

A-1

Ergoien

Goiburu

Aballarri
642 m

Muniskuegaina

Adarramendi
819 m

Oria ibaia

Buruntza

Martin Ugalde
Kultur Parkea

Eteneta I
harrespila

Aizkorriko
671 m

Oindo
785 m

Zaburu
781 m

Leizotz

ANDOAIN

Auzokalte
zubia

Leitzaran ibaia

Sorabilla

Unanibiako
zubia

Otieta
parkea

Leitzaran
Bisitarien Etxea

Plazaola-Leitzaran
bide berdea

Goiburu

Ferrata
Bidea

Bertxingo
zentrala

Leitzaran ibaia

Oria ibaia

INTERES GUNEAK • PUNTOS DE INTERÉS

1. **Goikoplaza**
2. **Bastero kulturgunea**
3. **Buruntza San Martin parke arkeologikoa /** Yacimiento arqueológico de San Martín de Buruntza
4. **Leitzaran Bailara eta Plazaola-Leitzaran bide berdea /** Valle de Leitzaran y Vía verde del Plazaola-Leitzaran
5. **Sagardoetxea. Sagardo museoa /** Museo de la sidra
6. **Foru Plaza eta udaletxea /** Foru Plaza y ayuntamiento
7. **Murgia jauregia /** Palacio de Murgia
8. **Santiagomendi ermita /** Ermita de Santiagomendi
9. **Hirigune Historikoa, udaletxea eta San Joan Bataiatzailearen eliza /** Centro histórico, ayuntamiento e Iglesia de San Juan Bautista
10. **Santa Barbara mendia: ermita, gotorlekua eta eskalada gunea /** Ermita, fuerte y zona de escalada
11. **Chillida Leku museoa**
12. **Galarreta Jai Alai pilotalekua /** Frontón Galarreta
13. **San Pedro eliza /** Iglesia de San Pedro
14. **Udaletxea /** Ayuntamiento
15. **Brigiden Komentua /** Convento de las Brígidas
16. **Plazaola Bide Berdea /** Vía Verde de Plazaola
17. **San Migel eliza eta udaletxea /** Iglesia de San Miguel y ayuntamiento
18. **Sarobe Arte Eszenikoen Gunea /** Centro de Artes Escénicas Sarobe
19. **Adarramendi /** Monte Adarramendi
20. **Minuskuegaineko Harrespilak /** Conjunto megalítico de Muniskuegaina
21. **Dema Plaza eta San Salbatore eliza /** Dema Plaza e iglesia de Salbatore
22. **Zumetaren murala /** Mural de Zumeta
23. **Udaletxea eta 650 Usurbil Bizi /** Ayuntamiento y 650 Usurbil Bizi
24. **Andatza mendia /** Monte Andatza

Donejakue Bidea / Camino de Santiago
Plazaola-Leitzaran bide berdea / Vía Verde del Plazaola-Leitzaran
Informazio puntua / Punto de información